

Gaztelekuan
EUSKARAZ



Nerabeentzako Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen

Dinamizatutako jarduerak egokitzea
adibideak


Gaztematika

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema

www.gipuzkoangazte.eus


2017ko iraila

Nerabe Zerbitzuetako programazioan hainbat jarduera dinamizatu egiten dira. Jarduera horiek, ezaugarri batzuk zaintzen badira, euskararen erabilera indartzen edo mantentzen laguntzeko tresna egokiak dira.



Hauk adibide batzuk. Denon artean zerrenda osatzen jarraitu dezakegu:


SUA
PAREKO
IBILBIDE ALDREBESTUA
AZALPENAK URRUN
DADOAREKIN IPUINAK ASMATZEN
DEBATEA
SARE SOZIALETARA EDUKIAK



Dinamizatutako jarduerak egokitzea

Hezitzaileak dinamizatzen dituen jardueretan, prozedura bat kontuan hartzen bada, errazagoa da beraien artean euskara erabil dezaten laguntzea. Honakoa da prozedura hori:

- **Beraien artean hizkuntza-erabiltzea ezinbestekoa izatea:** jarduera egokitu behar da hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izan dadin. Beraien artean zerbaitetaz hitz egin behar dute, hitz egindakoa beste batzuei azaldu behar diete eta, hori guztia, idatzi gabe egin behar da.
- **Gure eraginez laguntzea:** beraien kabuz aritu behar dute eta hezitzaileak parte hartze aktiboa izango du jarduerarekin lagunduz zein elkarrizketa askotan parte hartuz.
- **Ahalegina eskatzea edo gutxienez gure helburua edo nahia azaltzea:** horretan ari denean lagungarria izan daiteke euskara erabiltzeko ahalegina ikusi nahi duela edo euskaraz egitea nahi lukeela azaltzea. Hezitzaileak ahalegina eskatu ahal izateak nerabeen erabilera indartzeko balioko luke eta errefortzu positiboak eman ahal izatea ere erraztuko luke. Honi begira, behar bada aurretik motibazioarekin lotutako jardueraren bat egitea baliagarri izan liteke.



JARDUERA
Azalpena:
Oharrak:
Aukerak:
Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:
Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?



SUA

Azalpena:

Karta joku bat da, euskal mitologiako pertsonaietan oinarrituta. Partaide bakoitzari karta bat banatzen zaio eta kontalaria istorio bat kontatzen hasiko da borobileko denek begiak itxita dauzkatela. Pertsonaiak izendatu heinean hauek begiak ireki eta ezer esan gabe, keinuen bidez kontalariarekin zenbait gauza adostuko dituzte. Behin hori egin ondoren, jolasaren helburuak herritarrek inkisidoreak zein diren adostean eta topatzean datza, baina bitartean pertsonaia ezberdinak hiltzen doaz..... nola bukatuko da ?

Oharrak:

Txatxilipurdi elkarteak argitaratutako joko bat da. Azalpen zehatzak jokoan bertan datoz.

Aukerak:

Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:

Karta jokoa behar da. Txatxilipurdik argitaratutakoa da. www.txatxilipurdi.com

Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?



Tartalo kobazulo
batean bizi da.

PAREKO

Azalpena:

Minutu bat aurrean daukazun marrazkia besteei azaltzeko. Behin minutua bukatutakoan, puntu ezberdinak banatuko dira marraztu duzun horren baitan.... nor izango da marrazkilaririk finena?

Oharrak:

Txatxilipurdi elkarteak argitaratutako joko bat da. Azalpen zehatzak jokoan bertan datoz.


Marrazkiak asmatu ere egin daitezke, baina tresna eskura edukitzea lagungarria da.

Aukerak:

Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:

Marrazkiak eta azalpena behar dira. Txatxilipurdik argitaratutakoa da. www.txatxilipurdi.com

Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?



IBILBIDE ALDREBESTUA

Azalpena:

Seiko taldeak egingo ditugu eta kide bakoitzak azalpen bat izango du. Azalpen hori ordenatu behar dute ezer idatzi gabe. Azalpena ordenatzen dutenean leku jakin batera iritsi daitezke edo zerbait lortu dezakete...

Adibidez:

Zenbaki bat lortu behar dute kutxa bat ireki eta barruan dagoen altxorra lortzeko.

- Nerabe Zerbitzuan sartu eta bideogelarako eskailerak jaitsi dituzu.
- Zehazki... jaitsi dituzu (adb:4)
- Gero, sala aldera joan zara eta ateak gurutzatu dituzu.
- Zehazki... gurutzatu dituzu (adb:2)
- Azkenik, nekatuta zaudenez, eseri egin zara egongelako aulki batean.
- Zehazki... daude (adb:6)
- Klabea: Txikienetik handienera, hor duzue kandadoa irekitzeko klabea.

Aukerak:


Beste adibide bat errezetarekin ere izan daiteke: sukaldaritza tailerrean errezeta bat egitea proposatzen diegu, baina ibilbide aldrebestu bat proposatuko diegu. Beraiek urratsak antolatatu behar dituzte eta janaria prestatu. Goxoa egongo al da?

Nerabe Zerbitzuan bertan eta kanpo egin daitezke modu honetako dinamikak. Nahi adina asmatu daitezke.

Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:

Aurretik dena delako ibilbidea prestatu behar da eta azalpenak orrietan jarri.

Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?



AZALPENAK URRUN

Azalpena:

Erronka bat gainditu behar dute. Horretarako azalpen batzuk jarraitu behar dituzte, baina azalpen horiek ez dituzte eskura izango, metro batzuetara baizik.

Ordezkarri bat azalpenak dauden lekura joango da, irakurri, itzuli eta azaldu. Behin eta berriz egingo du berdina.

Azalpenak osatu ahala, urratsak emango dituzte eta erronka gainditu.

Azalpenak irakurri, eman, galderak egin... Prozesu horretan hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da.

Adibidez, taldeka, gorputzekin figurak egin behar dituzte:

1.- Hiruk lau hanketan lurrian jarri behar dute. Bik haien gainean hauek ere lau hanketan. Batek goian jarri behar du, bigarren hilarako bien gainean, lau hanketan. Zazpigarrenak argazkia atera behar du.

2.- Hiru bikote. Binaka, bata bestearen bizkarrean jarri. Goikoek eskuak eman behar dizkiote elkarri. Zazpigarrenak argazkia egin.

3.- Behean bi lau hanketan jarrita, banku luze moduko bat osatu: elkarren jarraian, alegia. Gainean hiru beraien gainean eserita. Seigarrena hiru horien hanken gainean etzanda. Zazpigarrenak argazkia atera.

Azalpena idatziz eduki beharrean irudietan eduki daitezke. Eta joan-etorrian ibili beharrean urrutitik azalpenak eman: besteek ez dute irudia ikusten eta azalpenak jarraitu behar dituzte.

Oharrak:

Nerabe Zerbitzutik kanpo egiten diren jardueretan ere erabil daiteke. Adibidez: Ginkana bateko frogak nola egin urrun dauden azalpenetan jarrita. Ezin dute frogak egin nola egin behar den jakin arte. Behin egindakoan hurrengo frogarekin ere berdina, eta abar.

Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:

Azalpenak edo irudiak prestatu behar dira aurretik.

Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?

STORY CUBES EDO DADOAREKIN IPUINA ASMATZEA

Azalpena:

Lau dado erabiliko ditugu.

Dadoek irudiak izango dituzte:

- Batek lekuak: mendia, hondartza, herria...
- Bigarrenak eta hirugarrenak pertsonaiak
- Laugarrenak sensazio edo emozio bat: beldurra, poza, tristua, haserrea...

Laukoteak egingo ditugu.

Kide bakoitzak dadoa botako du.

Talde bakoitzak dituen elementuekin historio bat sortu behar du.

Ondoren besteei kontatu beharko diete.

Historioa prestatzerakoan ezin dute idatzi, edo lehendabizi asmatu eta adostu behar dute, eta ondoren idatzi. Horrela, hizkuntza-erabiltzea ezinbestekoa bihurtzen dugu prestaketan ere.

Aukerak:


Dinamika hau hainbat modutara egokitu daiteke. Adibidez: ipuin edo historio ezagun bat hartu eta dadoak ematen dituen irudiak kontuan hartuta aldaketak egitea.

Adibidez, historia urbanoekin jolastea ondo egon daiteke.

Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:

Irudiak dituzten dadoak prestatu behar dira. Dadoak erosi ere egin daitezke jostailu dendetan.

Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?



DEBATEA

Azalpena:

Gai baten inguruko debate bat egingo dugu:

- Pelikula bat ikusi dugu eta hor lantzen den gaiaren inguruan
- Guztion artean erabaki behar dugu gairen bat (herri mailako jarduera batean parte hartzea adibidez)
- ...

Taldea landuko dituzte iritziak edota argudioak. Ondoren, guztion artean egingo dugu debatea. Debatearen izaeraren arabera, rolak ere bana ditzakegu: alde, kontra...

Idatzi gabe egiteko eskatuko diegu. Beraien artean hitz egin eta adosteko. Argudioak edota ideiak lantzen ari direnean, taldez talde ibiliko gara laguntzen, galderak egiten eta abar. Hau da: hezitzaileak jarrera aktiboa izango du elkarrizketetan.

Behin gaia landutakoan, eztabaidaren gidari bat hautatuko dugu. Debateko arauak ere adostuko ditugu: parte hartzeko modua, txandak, eta abar. Eta debatea euskaraz izango dela ere argi geratuko da.

Debatea egingo dugu.

Oharrak:

Interesgarria litzateke jardueraren hasieratik arauak adostea eta, debatea euskaraz izango dela argi geratzeaz gain, taldea ari direnean ere euskaraz egitera gonbidatzea. Hezitzaileari lagunduko lioke horrek.

Idatzi gabe egiteak taldea daudenean ere euskara erabiltzea ezinbestekoa bihurtzen du: nola aurkeztu pentsatu behar badute, edota beste iritzi batzuen aurrean beraiek nolako jarrera hartu, debatea euskaraz izango denez lagungarria da.

Aukerak:

Debatea egiteko dinamika ezberdin asko egon daitezke.

Epaketaren dinamika oso dibertigarria izaten da rolak ondo banatzen badira eta eszenifikazioa egiten bada: epailea, abokatuak, lekukoak...

Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:

Debatea bera ondo pentsatu eta antolatu behar da aurretik: gaia, gaia kokatzeko modua, taldeak egiteko modua, galderak eta abar.

Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?

SARE SOZIALETARA EDUKIAK

Azalpena:

Sare sozialetara edukiak igotzea proposatuko diegu, baina interaktiboak izan daitezen saiatuz.

Astean behin egiteko jarduera bat izan daiteke, jarduera puntual bat edo epe baten barruan egitekoa.

Gai bat aukeratuko dugu: challengeak, esperimentuak edo besteren bat.

Adibidez, esperimentuak egin nahi badira: hainbat aukera emango dizkiegu. Beraiek dena delako esperimentua egingo dute. Bideoz grabatuko dugu. Sare sozialetara igotzean ez dugu amaiera jarriko eta galdera egingo dugu: Zer gertatuko da? A aukera, B aukera eta C aukera. Sare sozialetatik nahi duenak bozka eman dezake. Handik egun batzuetara amaiera jarriko da eta zenbatek asmatu duten esango da.

Oharrak:

Parte hartzaileen adinaren arabera, gurasoen baimenak beharko ditugu sare sozialetan eduki hauek jartzeko.

Aukerak:

Bideoak eta sare sozialak erabiltzen baditugu, hainbat eta hainbat aukera izango ditugu ahozkoa erabiliz jarduerak egiteko.

Behar den materiala edo aurretik prestatu beharrekoak:

Zerbitzuren batean egiten da? Non eta nola?

